

Atxulaur Begia, 1995. urtean Biotopo Babestua izendatu zen Itxina mendiguneko egitura karstikorik ikusgarrietariko bat da. Mendigunearen ipar-ekialdean dago, gutxi gorabehera 1.100 metroko altueran.



1 Ibilbidea Pagomakurre



ostatuaren parean hasten da eta, bertan, bidea zutoin batean adierazita dago. Pagoz inguratutako atsedenleku

batetik igaroko gara. Hortik aurrera, Pagadiaren eskuinaldetik jarraitzen du bideak eta marraztutako seinaleak jarraitu beharko dira. Seinale horiei jarraituz, izeidi batean sartuko gara, ibar luzea zeharkatuko dugu eta putzuz betetako eremu batetara iritsiko gara.

2 Putzuz betetako

eremu hori zeharkatu behar ez izateko, hoberena, berau eskuinaldetik inguratzea da; horretarako, pinudi barruko bideari jarraitu behar zaio. 60-70 metro tara, erreka



gurutzatuko dugu, eta, aurrerago, bide nagusiari helduko diogu berriro ere.

3 Pixkanaka-

-pixkanaka, gorantz jarraituko dugu, pinudia zeharkatuz, harkaiztegi bat ikusi arte; han, antzinako gurdibidea aurkituko dugu.



4 Bide hau,

aintzina, gure inguruan pago egurrarekin egindako egur-ikatz garraiatzeko erabiltzen zen, horren lekuko dira inguruko pagoak. Garraiorako, zaldiak, mandoak edo idi gurdiak erabiltzen ziren, bideak (honek, adibidez) hala uzten zuenean. Bestalde, Gorbeia mendietan, oraindik ere, txondorrak eraikitze erabiltzen ziren plataforma zirkularrak aurki daitezke.



5 Bidean gora



eginez, landa batzuetara iritsiko gara; bertan, hesi bat zeharkatuko eta aurrerantz jarraituko dugu, beronen irteeraino iritsi arte. Handik, goialdean, Atxulaur Begia ikus dezakegu, eta, gure atzealdean, Arratia Harana, Orozko eta Zeberio udalerrak.

6 Gorantz jarraituz




gero, sakonune txiki batean (elorri zuri bat hartuko dugu erreferentziatzat), erdi ezkutatuta dagoen iturri batekin egingo dugu topo. Iturri hori artzainek eta mendizaleek erabiltzen dute. Iturri honen goialdean plataforma luzanga txiki bat dago; aintzina, inguruko artzainek bertan elkartu eta jokoak eta apustuak egiten zituzten.

7 Leku honetan egonik,



Atxulaur Begi aldera zuzenean igo ordez, ezkerrean, bidexka bat aurkituko dugu eta, pagadia zeharkatuz, Atxulaur Begiraino iritsiko gara (10 min.).

**heltzeko bidea**

Areatzako Eliza aurrean, pilotalekuaren ondoan, egoera onean dagoen mendi bide bat hasten da eta bide horrek Pagomakurre ostaturaino eramango gaitu (900 metrotara). Bertan hasten da ibilbidea.

ibilbidearen hasiera eta amaiera

Pagomakurre ostatua.

distantzia 1,5 km (Atxulaur Begiraino).**zailtasuna**

Ertaina-altua (klimatologiaren arabera).

interesa

Natura, paisaia eta geologia. Parkeko hainbat ibilbideren abiapuntua da besteak beste, Gurutzerako eta Itxina mendiguneko igoerak barne.

aholkuak

- Parke Natural batean gaudenez, funtsezkoa da fauna, flora eta, nola ez, ingurunea zaintzea.
- Zakarrontziak eta paperontziak erabili.
- Interesgarria da gida bat eramatea; bitxikeria ugari argitzen ditu.
- Mendirako arropa eta oinetako egokiak erabili (putzuz betetako zenbait gune daude). Altitude horretan, klimatologia azkar aldatzen da.



Parketxea
Gorbeia Parke Naturaleko
Interpretazio Zentroa
Gudarien Plaza, 1 - 48143 Areatza

TELEFONOA

94 673 92 79



Bizkaiko Foru
Aldundia
Nabazgarria Saria

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Agricultura



Ibilbideak

Atxulaur Begia



Bizkaiko Foru
Aldundia
Nabazgarria Saria

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Agricultura

